

# ARANAZKO ZIRKOA

*Iñaki Bengoetxea*

Gure inguruko mendiak obeto ezagutzearren, alako egun batean nik, beste nere bi lagunekin, Aranaz Zirkoaren eskursioa egitea pentsatu dugu. Eskursio hau Aranaz herriari, bere inguruko mendietatik zehar, buelta ematea konsistitzen du. Aranazera Bera de Bidasoara dijoan au-

tobidetik eta Venta de Yanzinen Lesakako bidea hartuz iristen gera. Kotxean egin dugun bidaia, ez oso luzea, bukatu da eta nahiz eta gogo gutxi eduki oinez hazteko, motxila hartu eta hirurak bagoaz. Seguro ez gaudenez zein den hartu behar dugun bidea kalean dabilen baserritar bati gal-

detzen diogu eta baserritar honek gure dudak aklaratzeko dizkigu.


Gure lehen helburua Mendi-Eder (1.074 m.) mendia da. Hasiara bezela aldapaluzeta gogor bat daukagu. Ahalegin handi xamar eta izerdi on baten ondorez Mendi-Eder-en gendorrera iristen gara. Hemen atsedean txiki bat hartzen dugu eta bitartean komentatzen dugu oso azkar igo gerala, baina pena merezi izan duela, gandorrontatik benetako bista zoragarriak baititugu; alde batetik Bidasoa eta Aranazko bailarak, eta beste aldetik, atze atzean, Pirineoak agertzen dira.

Aurrera segituaz eta gora beherakada batzuen ondorez azkeneko aldaparekin enfrontatzen gera. Izerdi piska bat egin eta gero Mendi-Eder-n gailurrera iristen gara. Gailurretik ikusten den panoramika oso ikusgarria da; ipar aldera begiratuaz Aranaz zulo batetan sartuta ikusten dugu, gure ezker aldera gure segitu behar dugun gendorra, gure atzeko aldean (beti ipar aldera begiratuaz) Mendaur mendia eta bere azpian presa txiki bat, eta atze atzean denbora guzian Pirineoko mendikatea. Hozta eta haize asko egiten duenez eskularruak eta anoraka jarri beharrean aurkitzen gara, beraz argazki batzuk atera eta segituan gure bidea segitzen dugu.

Gure lehenengo helburua lortu dugu eta gure hurrengo puntua Ekaitz-era (1.037 m.) igotzea da, baina esfuertzo nahiko handia egin dugunez ezer ere ez janda, aukeratzen dugu atsedean bat egitea zertxobait, ez asko, jateko. Zerbait jan eta gero aurrera segitzen dugu.


Ez zaigu denbora asko kostatzen ez eta esfuertzo handirik Ekaitz-araino igotzea, altuera piska bat galtzena duguelako gero berriz malda txiki bat igotzeko. Ekaitzaren gailurrean buzoi txiki bat eta indize geodesiko bat aurkitzen ditugu. Hemendik ere Mendi-Eder-etik zeuden bista berdinak ikusten ditugu. Gailur honetan ez gara denbora asko gelditzen, baizik eta aurrera segitzen dugu.

Ekaitz jaitsi eta Haiako baso batetan sartzen gara, baso honetan ehiztarien borda bat aurkitzen dugu, egun batzuk pasatzeko oso ondo preparatua dagoena. Borda txiki hontan geldiaro bat egiten dugu ur



*Bidasoa; al fondo, Larun.*

*Mendaur desde Ekaitza.*



piska bat erateko eta eskularruak eta anoraka kentzeko, orain ez bait du hotzik egiten.

Eskursioaren erdia baino zerbait gehiago egin dugu, bakarrik Ibintza-ra (1.037 m.) igotzera eta gero Aranazera jeistea besterik ez zaigu falta. Basotik ateratzen gara eta Aranaz Artikutzatik separatzen duen muga segituaz, aldapa gogor bat superatu ondoren, Ibintza-ra iristen gara.

Hemen 15 minutuko geldione bat egiten dugu gure indarrak errekuaratzeko, eta nondik jeitsi behar geran Aranazera aukeartzeko. Gailur hontatik Artikutzako terminoak oso ondo nabaritzen dira. Jeisten hasi behar geran punturaino iritxi arte, ez da alturarik galtzen; orain 912 metrotara gaudete eta 475 metrotaraino jeitxi behar gara. Jaitxiera oso ederra da baso batetik eta denbora guzian orbelaren artean dijoalako. Hibaitxo batekin topatzen gara eta bertan errefreskatu egiten gara, metro batzuk igo ondoren berriro bidean sartuz. Bide hau Artikutzatik Aranazeraino dijoana da. Bide hau oso polita eta ederra da bertatik ibiltzeko, baina segituan mozten da bide hau. Desgraziaz mozketa hau zibilizazioak orijinatu du; orain ez da bide bat, baizik eta kotxeak ibil daitezken pista bat da. Baserri batzuen ondotik pasa ondoren Aranazera jeistea falta zaigu bakarrik. Baina problema batekin aurkitzen gara; lurralde hau menditartez beterik dago, orduan berriro ere zulo bateraino jeisten gara. Zuloraino iristean zubi erromaniko baten bidez hibaia pasatzen dugu eta azkeneko malda gora igotzen dugu Aranaz herrira iritxiz.

Eskursioa bukatu dugu eta ondorio bezala, pentsatu dugu nahiz eta eskursio gogorra izan pena merezi izan duela.



Nieblas matinales desde Ibintza.

Cumbres de Peña Ituren, Mendaur y Mendi-eder.



Fotos: J. M. Alguazar.

## CANTO DE CISNE DE UN MENDIGOIZALE

### BRINDIS

Ante quienes compartimos,  
los afanes montañosos  
largo tiempo,  
alzo mi copa  
para que vientos cimeros  
saturados de añoranza  
rebotantes en la roca  
del tesón y la esperanza,  
creen nuevos senderos.

• • •

Atrás queda la secular montaña  
en su perenne solidez inmóvil  
en su solemne soledad callada.  
Alza la frente sobre nieblas húmedas,

guarda en sus dentro los recuerdos vívidos  
de quienes fuimos compañeros íntimos  
en su solemne soledad callada.  
Nieves y lluvias del invierno gélido  
le lavarán la cara,  
vientos y soles del verano cálido  
le secarán la frente.  
Y seguirá perenne en su insolencia  
su corazón de piedra sin latido  
y su ser inconsciente sin sentido.  
La montaña se queda: no lo sabe.  
Yo me voy, pero sé  
que en un acto de fe  
puedo mover montañas.

Joaquín Navarro  
1-X-1982